

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLASGAIA

1. Erakutsi zazu Barber erretorikaren eskualdun gor.
2. ——— " ——— Haren Aphorizgoa!
3. Zuen ustegoa idazlari honen mintzairaz.

**ESKUALDUNAK EGYPTOAN**

**Ⓘ (Eguerriko Kondaira) 3**

Hainbertzenarekin, huna non iratzartzen den Jesus, Mariaren besoetarat gure arbasoak berriz itzuli orduko. Eta hirri goxo bat egiten diote berehala:

—Hor zaiztea, nere Eskualdun maiteak? Zuen beha nindagon, urthe huntan guzian. Atsegin dut zuek ikusirik, zeren, zuen moldean, Jainko legerari bethi atxikiak egon zaizten. Zertan dire zuen lagunak, han, Eskual mendi eder hetan? Begira bethi zuen fedea! Eta fedearen begiratzeko, *atxik bethi zuen mintzaira ederra*; atxik ere, fedearen behar-orduetako... zuen *makila* lerdanak. Zoazte, itzul zaizte zuen herrietarat! *bihotzez*, eta menderen mendeentzat, benedikatzen ditut nere Eskualdun adixkideak. Nere girixtinoetan, hek nahi ditut eta hek izanen dira bethi hoberenak!...

Biharamunean, etxeari buruz eman ziren Eskualdun arbasoak. Bidea labor iduritu zitzaizoten gibelerakoan; alabainan, Jesusen graziez ihaurri heldu ziren.

Eskual-Herrirat noizbeit ethorri zirenean, nork erran Eskualdunen bozkarioa, Jesusen mezu maite handia entzutearekin? Ordutik, jada, eta Erromatik lehen aphezpikuak ethorri artean, girixtino eginak ziren lehiaz eta bihotzez...

Ene iloba maiteak, horra akabo ene kondaira. Jesusek galdegin bezala, atxik zuen mintzaira ederra, zalhu eta garbi atxik ere zuen *makilak*; Eliza-Ama Saindua, Jesusen fedea, makila horien beharretan izan ditezke, eta behar-bada, guk uste baino lasterrago!...

Eta Eguerriko bere kondaira pollita hola bururatu zuen az gure Aitaxok.

Eta haurrak, ilobasoak, aho xilora oraino beren Aitaxi onari beha zagozkiolarik, ohartu zen hau, *Peltan*, zaharrenak, sukalde xokoan harturik, tinko tinkoa ahurrean zaukala *bere aitaren makila*!...

Eta berehala, piztu, loriatu zitzaion Aitaxori bere Eskualdun bihotz maitea.

**ⓓ ADITZ IKASKUNTZA.**

- |                        |                         |
|------------------------|-------------------------|
| 31. Zoazte             | 32. Iduritu zitzaizoten |
| 33. Beha zagozkiolarik | 34. Ahurrean zaukala.   |

31. JOAN - Impératif.

- |                |                          |             |
|----------------|--------------------------|-------------|
| Vas            | = Hoa                    |             |
| Allez          | = Zoazte                 |             |
| Qu'il aille    | = Biva                   | (archaïque) |
| Allons         | = Goazin                 |             |
| Allez          | = Zoazte                 |             |
| Qu'ils aillent | = Bivaz <u>edo</u> Bivaz | (archaïque) |

32. IZAN. Régime Indirect. Indicatif. Imparfait

- SINGULIER Ni mintzen = j'étais
- |                      |                         |
|----------------------|-------------------------|
| Ni (moi) mintzairzun | (à vous) = je vous étai |
| " mintzaion          | (à lui) = je lui étai   |
| " mintzairzuen       | (à vous) = je vous étai |
| " mintzaïen          | (à eux) = je leur étai  |
- Zu zinen = vous étiez
- |                           |                            |
|---------------------------|----------------------------|
| Zu (vous) zintzairzikitan | (à moi) = vous m'étiez     |
| " zintzairzikion          | (à lui) = vous lui étiez   |
| " zintzairzikigun         | (à nous) = vous nous étiez |
| " zintzairzikien          | (à eux) = vous leur étiez  |
- Hura zen = il était

- |                      |                          |
|----------------------|--------------------------|
| Hura (lui) zitzaïtan | (à moi) = il m'était     |
| zitzaïzun            | (à vous) = il vous était |
| zitzaïon             | (à lui) = il lui était   |
| zitzaïgun            | (à nous) = il nous était |
| zitzaïzuen           | (à vous) = il vous était |
| zitzaïen             | (à eux) = il leur était  |